


Naiara Intxausti Arbizu

D maila • 1 aipamena

Nire izena Naiara Intxausti da eta 13 urte ditut. Beasaingo Lasalle ikastetxean ikasten dut. Nire denbora librean lagunekin ateratzea gustazen zait. Kirola egitea gustuko dut. 2 kirol praktikatzen ditut: Gimnasia Erritmikoa eta Igeriketa.



Doinua: Loreak udan ihintza bezela

2020. URTEA

ALBISTE TXARRAK IRITSI ZIREN
TXINAKO WUHAN HERRITIK
URRUN ZELA TA GUTXIETXITA
EZ IKUSIZ ARRISKURIK
BIZI NORMALA EGITEN SEGI
EDUKI GABE SUSMORIK
EUROPAN GERTA OTE ZITEZKEN
HORRENBESTE HERIOTZIK

HASI ORDUKO TENSIO ASKO
TA AKZIOAK BERANDU
EZER EZETIK SEGITUN GIÑEN
DENOK ETXEN ISOLATU
OSPITALETAN EPI-EN FALTA
ARRISKUTSUA BIHURTU
SEGURTASUNAZ EZIN LAN EGIN
TA GAIXOK EZIN SALBATU

BERTSOAK

OSPITALEAN SANITARIOK
BIZIA ARRISKUN JARRIRIK
GAIXOAK ALDIZ INGRESATURIK
ARNASA HARTU EZINIK
ARNAS GAILUAK NAHIKO EZ ETA
KOLAPSOAREN BIDETIK
BOLUNTARIO ASKON LAGUNTZAK
ESKERTU NAHI NITUZKE NIK

NAHIZ ZAILA IZAN EGOERA HAU
DENOK LAGUN DEZAKEGU
BESTEEI KULPAK BOTATZEI UTZI
TA IDEIAK APORTATU
GOMENDIOAK ERRESPETATUZ
DESKONFIANTZAK UXATU
DENOK EKIPO BIHUR GAITEZEN
ETA GARAITUKO DEGU